

# XEDAPEN OROKORRAK

## SEGURTASUN SAILA

### 5340

*AGINDUA, 2022ko azaroaren 25ekoa, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuarena, zeinaren bidez argitara ematen baita ibilgailu motordunak alokatzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoek nola bete behar dituzten erregistro-betekizunak eta Ertzaintza informatzeko betekizunak.*

Herritarren segurtasuna babesteari buruzko martxoaren 30eko 4/2015 Lege Organikoaren 25.1 artikulua ezartzen du herritarren segurtasunerako garrantzitsutzat jotzen diren jarduerak egiten dituzten pertsona fisikoek edo juridikoek dokumentu-erregistroaren eta informazioaren betekizunak bete beharko dituztela, aplikatu beharreko xedapenetan ezarritako moduan. Jarduera horien artean daude gidaririk gabeko ibilgailu motordunak alokatzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoei aplikatu behar zaizkienak.

Erabili beharreko xedapenei dagokienean, Errege Dekretu honetan jasotakoak aipatu behar dira: 933/2021 Errege Dekretua, urriaren 26koa, zeinaren bidez ezartzen baita zer betebeharrak dituzten ostatu-jarduerak egiten eta motordun ibilgailuak alokatzen dituzten pertsona fisiko eta juridikoek dokumentu-erregistroari eta informazioari dagokienez.

Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 17. artikuluan ezarritakoarekin bat, Euskal Autonomia Erkidegoak du bere lurraldean pertsonak eta ondasunak babesteko eta ordena publikoa eta herritarren segurtasuna zaintzeko eskumena. Hori dela eta, Ertzaintzak du herritarren segurtasunerako jarduera garrantzitsu horiek kontrolatzeko ahalmena.

Herrizaingoko sailburuaren 2012ko maiatzaren 18ko Aginduaren bidez, gidaririk gabeko ibilgailuen alokairuan diharduten establezimenduek Ertzaintzari eman beharreko erregistro- eta informazio-mailako betebeharrak nola gauzatu behar dituzten azaldu zen. Agindu horren bidez ezarri zen gidaririk gabeko turismo-ibilgailuen alokairuan diharduten establezimenduen titularrek, egunero, erregistratu eta jakinarazi behar dizkiotela Ertzaintzari egiten dituzten eragiketak.

Globalizazio- eta teknifikazio-prozesu batean murgilduta gaude eta Administrazio publikoak, gizartearen parte diren aldetik, ezin dira kanpoan geratu. Administrazio guztiek, bakoitzak bere mailan eta bere jarduketaren eremuan, beren jardueraren barruan informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak txertatu dituzte.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ekarri zuen Administrazioaren eta administratuen arteko harremanetan, modu orokortuan, komunikazio elektronikoa sartzea; Administrazio Publikoen jarduera zuzendu behar duten efikazia- eta efizientzia-printzipioak egokiago betetzeko helburuarekin, baita herritarren eta enpresen bermeak indartzeko helburuarekin ere, zioen azalpenean berariaz aipatzen duen bezala.

Ildo horretan, Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legeak behartzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten instituzio eta enteak bitarteko elektronikoen erabilera ezartzera, zerbitzuak emateko, komunikazioetarako eta herritarrekin dauzkaten harremanetarako.

Horrez gain, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren jardueretan eta herritarrekiko nahiz beste administrazioekiko harremanetan bitarteko elektronikoko erabiltzeko, ordenamendu

juridikoak ezartzen dituen mugak bete beharko dira, hango printzipio orokorreari uneoro men eginez, eta, bestalde, herritarrek aitortuak dituzten eskubideen erabilera osoa errespetatu beharko da eta Legeak ezartzen dituen printzipioei jarraitu beharko zaie.

Agindu honen bidez argitara ematen da gidaririk gabeko ibilgailu motordunak alokatzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoei dauzkaten erregistro-betekizunak eta Ertzaintza informatzeko betekizunak nola bete behar dituzten.

Hori dela eta,

#### EBAZTEN DUT:

##### 1. artikulua.– Xedea eta eremua.

1.– Agindu honen bidez argitara ematen da gidaririk gabeko ibilgailu motordunak alokatzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoei nola bete behar dituzten herritarren segurtasuna babesteari buruzko araudiak ezartzen dizkien erregistro-betekizunak eta Ertzaintza informatzeko betekizunak.

2.– Agindu honen aplikazio-eremuak barne hartzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan gauzatzen diren gidaririk gabeko ibilgailu motordunen alokairu-jarduera guztiak; modalitatea, titularraren pertsonalitatea edo antolaketa-eredua edozein direla ere.

##### 2. artikulua.– Informazioa gordetzeko eta erregistratzeko betebeharrak.

1.– Agindu honen aplikazio-eremuaren barruan dauden ibilgailuen alokairu-jardueren titularrek Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa <https://www.euskadi.eus/egoitza-elektronikoa/> erregistratu eta alta eman behar diete agindu honen eranskinean zehazten diren identifikazio-datuei.

2.– Era berean, eragiketa bakoitza informatikoki erregistratu behar dute, eta informazio hori gorde eta Ertzaintzaren eskura jartzeko betebeharra daukate. Informazio hori hiru urtez gorde beharko da.

3.– Betebehar horren mende daudenak arduratu behar dira jasotako datuak nortasun-agiri ofizial onartuetan azaltzen direnekin bat datozela egiaztatzeaz.

##### 3. artikulua.– Jakinarazteko betebeharra.

1.– Betebehar horren mende daudenek, jardueran hasi aurretik, Ertzaintzari jakinarazi beharko dizkiote eranskineko 1 tartekian aipatzen diren datuak. Emandako datuetatik edozein aldatzen bada, beste jakinarazpen bat egin beharko da.

2.– Horrez gain, betebehar horren mende daudenek Ertzaintzari gauzatzen duten jarduerari buruzko datuak jakinarazi beharko dizkiote, eranskineko 2, 3, 4 eta 5 tartekietan agertzen direnak.

Jakinarazpen hori berehala egin behar da eta, gehienez ere, 24 orduko epean, une hauetatik zenbatzen hasita, hurrenez hurren:

a) Erreserba egin edo kontratua formalizatzen denetik edo, hala badagokio, deuseztatzen denetik.

b) Kontratututako zerbitzuak hasten direnetik.

3.– Artikulu honetan aurreikusten diren jakinarazpenak prozedura telematikoen bidez egin behar dira.

4. artikulua.– Gidaririk gabeko ibilgailuen alokairu-partreak.

1.– Gidaririk gabeko ibilgailuen alokairu-jardueren titularrek erabiltzaileen datuak jasoko dituzte, horiek erregistratzeko eta jakinarazteko, legez hori egiteko betebeharra baitaukate.

2.– Gidaririk gabeko ibilgailuen alokairu-zerbitzuak erabiltzeko partreak zerbitzu horien erabiltzaileak sinatu behar ditu, ezartzen den sistema eta eredia erabiliz.

3.– Partreak eta orriak ibilgailuen alokairu-establezimenduak emango ditu eta parte eta orri horietako datuen zehaztasunaren erantzulea izango da, hau da, datu horiek erabiltzaileen identitatea egiaztatzen duten dokumentuekin bat etorri behar dute eta identitate-dokumentu horiek erabiltzaileek erakutsi edo aurkeztu behar dituzte.

#### XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabeturik geratzen da Herrizaingoko sailburuaren 2012ko maiatzaren 18ko Agindua, gidaririk gabeko ibilgailuen alokairuan diharduten establezimenduek Ertzaintzari eman beharreko erregistro- eta informazio-mailako betebeharrak betetzeko modua garatzen duena.

#### AZKEN XEDAPENA

Agindu hau 2023ko urtarrilaren 2an jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko azaroaren 25a.

Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburua,  
JOSU IÑAKI ERKOREKA GERVASIO.

## ERANSKINA

## 1. Errentatzailearen datuak

- a) IFZ/IFK.
- b) Konpainiaren izena.
- c) Udalerria.
- d) Probintzia.
- e) Herrialdea.
- f) Errentatzailearen helbide osoa.
- g) Telefono finkoa edota mugikorra.
- h) Enpresaren webgunea.
- i) Helbide elektronikoa.

## 2. Errentariaren datuak

- a) Izena /Sozietatearen izena
  - b) Lehen abizena.
  - c) Bigarren abizena.
  - d) Sexua.
  - e) Identitate-dokumentuaren zenbakia.
  - f) Dokumentu mota (NAN, pasaporte, AIT, IFZ).
  - g) Nazionalitatea.
  - h) Jaiotze-data
  - i) Ohiko bizilekua.
- Helbide osoa.
- Udalerria.
- Herrialdea.
- j) Telefono finkoa.
  - k) Telefono mugikorra.
  - l) Helbide elektronikoa:

## 3. Gidari nagusiaren datuak

- a) Izena.
  - b) Lehen abizena.
  - c) Bigarren abizena.
  - d) Sexua.
  - e) Identitate-dokumentuaren zenbakia.
  - f) Dokumentu mota (NAN, pasaporte, AIT).
  - g) Nazionalitatea.
  - h) Jaiotze-data.
  - i) Bizileku iraunkorra.
- Helbide osoa.
- Udalerria.
- Herrialdea.

- j) Telefono finkoa.
- k) Telefono mugikorra.
- l) Helbide elektronikoa:
- m) Gidabaimena.
  - Mota.
  - Indarraldia.
  - Zenbakia.
  - Euskarri-zenbakia.

#### 4. Bigarren gidariaren datuak (hala badagokio)

Aurrekoaren datu berdinak.

#### 5. Transakzioari buruzko datuak

##### a) Kontratuaren datuak.

- Erreferentzia-zenbakia.
- Data.
- Lekua.
- Sinadurak.

##### b) Kontratuaren exekuzioari buruzko datuak.

- Jasotzeko lekua.
- Jasotzeko eguna eta ordua.
- Itzultzeko lekua.
- Itzultzeko herrialdea.
- Itzultzeko eguna eta ordua.

##### c) Ibilgailuaren datuak.

- Marka.
- Modeloa.
- Matrikula.
- Bastidore-zenbakia.
- Kolorea.
- Mota (kamioia, furgoneta, turismoa).
- Zenbat kilometro zituen jasotzean.
- Zenbat kilometro zituen itzultzean.
- GPSaren datuak (baldin badago).

##### d) Ordainketa-datuak.

- Mota (efektiboa, kreditu-txartela, ordainketa-plataforma, transferentzia...)
- Ordainketa-bitartekoaren identifikazioa: txartel mota eta zenbakia, bankuko kontuaren IBANA, mugikorraren bidezko ordainketa, besterik.
- Ordainketa-bitartekoaren titularra.
- Txartelaren irautze-data.
- Ordainketa-data.

Datuen Babesari buruzko oinarrizko informazioa-

Zure datu pertsonalak tratatu egingo dira eta herritaren segurtasunerako garrantzitsuak diren jarduketan esparruan egiten den tratamendu-jardueran sartuko dira

- Arduraduna: Segurtasun Sailburuordetza-Euskadiko Poliziaren Datuak Prestatzeko Zentroa.
- Helburua: Jarduketan, ikerketan eta erregistro-liburuen kudeaketa segurtasun publikorako garrantzitsuak diren jarduketan esparruan eta, bereziki, gidaririk gabeko ibilgailu motordunen alokairu-jardueran esparruko informazioaren tratamenduari dagokionean.
- Legitimazioa:
  - Tratamendua nahitaezkoa da legezko betebeharrak aplikagarriak betetzeko.
  - Tratamendua nahitaezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoaren izenean burututako eginkizun bat betetzeko.
  - Tratamendua Lege Organiko honetan aurreikusitako helburuak betetzeko: maiatzaren 26ko 7/2021 Lege Organikoa, arau-hauste penalak prebenitu, detektatu, ikertu eta epaitzeko eta zehapen penalak betearazteko tratatzen diren datu pertsonalak babesteari buruzkoa.
  - 1/2020 Legegintzako Dekretua, uztailaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen testu bategina onartzen duena.
  - 4/2015 Lege Organikoa, martxoaren 30ekoa, Herritarren Segurtasuna Babestekoa.
- Hartzaileak:
  - Segurtasun-indarrak eta -kidegoak.
  - Epaitegiak eta Auzitegiak.
  - Ogasun publikoa eta zerga-administrazioa zehapenak betearazteko.
  - Beste edozein organismo eskudun, legeak baimentzen badu.
- Eskubideak: Datuak eskuratu, zuzendu eta deuseztatzeko eskubideak dituzu, bai eta datuen tratamendua mugatzeko eskubidea ere.
- Araudia:
  - 7/2021 Lege Organikoa, maiatzaren 26koa, arau-hauste penalak prebenitu, detektatu, ikertu eta epaitzeko eta zehapen penalak betearazteko tratatzen diren datu pertsonalak babesteari buruzkoa.